

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NLk 17 ikastaro espezifiko antolatu ditu enplegurako prestakuntza ematen duten irakasleentzat

*Ehun bat pertsona bildu dira profesional-talde horri zuzendutako berrikuntzari eta marka pertsonalari buruzko jardunaldira; taldea 1.300 bat pertsonak osatzen dute*

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 18

Nafar Lansarek 1.300 pertsona ditu irakasleen fitxategian inskribatuta; hau da, Foru Komunitatean enplegurako prestakuntza emateko baimendutako profesionalak.

Prestakuntza-  
eskaintzaren funtsezko zutabearekin komunikazioa indartzeko eta trebakuntza ere errazteko asmoarekin, erakundeak jardunaldia antolatu du ostiral honetan: “Berrikuntza eta marka pertsonala enplegurako prestakuntza”.

Bertara ehun bat lagun hurbildu dira, eta profesional horientzako 2019ko [Prestakuntza Plana](#) aurkeztu dute.

Prestakuntza espezifikoa 17 ikastarok osatzen dute, eta hauei buruzkoak izango dira: alderdi didaktikoak eta metodologikoak (materialak, baliabideak edo proiektuetan oinarritutako ikaskuntza), irakasleentzako coaching, ingelesa, ikastaroen online tutoretza, adimen-desgaitasuna duten pertsonen tratamendua edo lan-orientazioa. Izena emateko epea ikastaroa hasteko eguna gerturaten ari den heinean irekiko da.

Berrikuntzari eta marka pertsonalari buruzko jardunaldia aipatu eremuetan ospe handia duten bi espezialistak eman dute: [Celia Ruiz](#), prestakuntzaren berrikuntza espezialista eta erreferentziatzko blogaria; eta [Félix Muñoz](#), marketing arloetan saritua.

Saioa, NLko zuzendari kudeatzailea den Paz Fernándezek aurkeztu du, eta ondorengo nabarmendu du: “prestakuntza pertsonen eta irakasleen abiapuntua da; azken horiek “ikaskuntzaren agente bideratzaileak dira”, eta, gaur egun, pertsonak aldaketa azkarren ingurunera egokitzea errazteko erronka dute. “Enplegurako prestakuntzako profesionalak bereziak zarete gizartearentzat, garatutako herrialdeen gakoa hezkuntza eta prestakuntza baitira. Egokitu beharreko



NEZ-NLko zuzendari kudeatzailea den Paz Fernández enplegu-irakasleei zuzendutako berrikuntzari eta marka pertsonalari buruzko jardunaldian.

lehen pertsonak zarete, enpresa-mundutik eta benetako lan-esperientziatik oso gertu baitzaudete”, justifikatu du.

Jarraian, “Marka pertsonalaren kudeaketa prestakuntzako profesionalentzat” izeneko hitzaldia eman du Félix Muñozek, Marketing eta Komunikazioko irakaslea eta aholkularia, Marketing arloko profesional onena bezala izendatua eta behin baino gehiagotan saritua komunikazio-mailako sormenean, eraginkortasunean eta berrikuntzan egindako kudeaketarengatik; halaber, 25 urteko lan-esperientzia Coca-Cola, Cepsa, Telefónica eta Movistar bezalako konpainietan. Merkaturan marka baliotsua izatea edozein negoziorentzat abantaila den moduan, prestakuntzako profesionalentzat ezinbestekoa da lana erraztuko dion eta irudi eta pertzepzio egokia nahiz sinesgarritasuna emango dion marka pertsonal ona sortzea eta horri eustea.

11:30ean eta 2019ko Irakaskuntza Plana aurkeztu ondoren (enplegurako prestakuntzako irakasleentzako prestakuntza-jarduerak), Celia Ruizen txanda izan da, Paterna-Valentziako CRNko Garapen, Berrikuntza, Esperimentazio eta Prestakuntza Departamentuko arduradunarena.

“Prestakuntzan berritu” blogaren egilea da, eta honako hauen inguruko proiektuak garatzen ditu: irakaskuntzako gaitasun digitala, metodologia aktiboak sartzea erreminta digitalekin, LABORA gela birtualaren kudeaketa, e-Learning edukiak, irakasle berritzaileen komunitateak, e.a. Horrez gain, ikastaroak, hitzaldiak ematen ditu etengabe ikasteko bide berrien, irakaskuntzako gaitasun digitalaren edo profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko hedapenaren inguruan.

Aurrerapen teknologikoen eta ekonomia digitalak eta globalizatuak irakasleak prestakuntza profesionala nola jorratzen ari diren hausnartzera behartzen ditu; hain zuzen ere, pertsonak malgutasuna, egokitzeko gaitasuna eta okupazio jakin batekin loturikoetatik haratago dauden trebetasunak eskatzen dituzten lan-inguruneetan integra daitezten.



Ezkerretik eskuinera, Gaitasun Profesionalen Garapen zerbitzuaren zuzendaria, Ignacio Catalán; Enplegurako Prestakuntzaren Garapeneko teknikaria, Lola Urrutia; Celia Ruiz eta Félix Muñoz.